

0-2 URTE BITARTEKO AHOLKUAK

- 0-2 urte bitartean ez da gomendagarria haurrak pantailekiko inolako esposiziorik edukitzea.
- Eguneroko ekintzak burutu ahal izateko (jan, bainatu, jantzi,...) tresna digitalak erabiltzen baditugu haurrak distrahituta egoteko eta errazagoa izateko, baldintzatuta egongo dira etorkizun batean eta zailagoa egingo zaie egunerokoa garatzea tresna hauek erabili gabe.
- Saiatu behar gara ateratzen dizkiegun bideo eta argazkiak murrizten, alaba-semeen bizitza zuzenean eta ez pantaila baten bitartez jarraitu ahal izateko.
- Haurren argazki eta bideoak sare sozialetan partekatu baino lehen pentsatu zergatik egiten ari zaren eta zein ondorio izan dezakeen ekintza horrek zure haurraren etorkizunean.
- Pentsatu haurra oraindik oso gaztea denean zein motatako ohitura digitalak (pantailen erabilera bazkalorduetan, etxeko zein espaziotan erabili daitezkeen, ordutegiak,...) ezarri nahi dituzun etxean, hasieratik ohitura osasungarri batzuekin haz daiten.